

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Goicoechea kontseilariak Energia Berriztagarren Zentro Nazionalaren zerbitzuen balio handia nabarmendu du

Instituzioak 200 ikertzaile baino gehiago ditu, eta bost kontinenteetan egiten du lan

Miércoles, 10 de agosto de 2011

Landa Garapen,
Industria, Enplegu eta
Ingurumen Departamentuko
kontseilariak, Lourdes
Goicoechea

Zubelzuk, Energia
Berriztagarren Zentro
Nazionalak (CENER)

ematen dituen zerbitzuen balio handia nabarmendu du, Nafarroan dituen instalazioetara egindako bisitan; era berean, erakundeak abian dituen proiektuen berri eman dio kontseilariari.

Kontseilariak, lehenik eta behin, zentroak Sarrigurenen duen egoitza bisitatu du; toki horretan aurkitzen dira eguzki-panel termikoen eta modulu fotovoltaiakoen entseguko laborategiak. Ondoren, Zangotzara joan da, Aerosorgailuen Entseguko Laborategira, horrelako ezaugarriak dituen bakarra munduan, eta, amaitzeko, 2. generazioko Bioerregaien Zentroan izan da, Agoitzen.

Bisitan, honako hauek izan dira kontseilariarekin batera: José Javier Armendáriz, CENER zentroko zuzendari nagusia; Fernando Sánchez, zuzendari teknikoa; eta Jorge San Miguel Induráin, Departamentuko Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusia.

Lourdes Goicoecheak, Nafarroako Gobernuak kontseilari gisa, CENER-CIEMAT Fundazioaren lehendakaritza bere gain hartuko du denbora gutxi barru; hau da, zentroko organo errektore gorenarena. Horren patronatua ondorengoek eratzten dute: Industria, Turismo eta Lan Ministerioak, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak, Ikerketa Energetikoen, Ingurumenekoen eta Teknologikoen Zentroak (Ciemat) eta Nafarroako Gobernuak. Fundazio horretakoak dira, baita ere, Ikerketako idazkaria den Felipe Pétriz eta Energia Estatu Idazkaria, Fabricio Hernández.

CENER trebakuntza handiko eta nazioartean ospea duen zentro



CENER-ko bisita. Ezkerretik esquinera José Javier Armendáriz, Goicoechea kontseilaria, Jorge San Miguel eta Fernando Sánchez.

teknologikoa da, ikerketa aplikatua eta energia berriztagarrien garapenean eta sustapenean espezializatua. 200 ikertzaile baino gehiago ditu, eta bost kontinenteetan egiten du lan. Horixe azpimarratu du Goicoechea kontseilariak bisitan zehar.